

Ildo beretik, Dekretu horretako 7.3. artikuluan ezarri da Parke Naturalaren Patronatuaren (aholkua eta laguntza emateko organoaren) lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren erabaki bidez izendatuko dela, Parkea kudeatzeko ardura duten organoek proposatuta.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua dira Parke Naturala kudeatzeko organo eskudunak bi lurralde historikoetan; bada, organo hauek Parke Naturala kudeatu eta finantzatzeko aldera hitzarmena egitea proposatu dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko foru diputatua izendatuko litzateke, proposamenaren arabera, Parkeko Patronatuaren lehendakari.

Era berean, zuzendari-artatzailea izendatzeko prozedura ezarri da eta Parke Naturala kudeatu eta administratzeari lotutako gainerako alderdiak zehaztu dira, besteak beste: kudeaketaren ondorioz izango diren gastuak finantzatzean Foru Aldundi bakoitzak zein partaidetza izango duen. Akordio honen I. eranskinean jaso da aipatutako proposamena.

Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2009ko apirilaren 7an egindako bileran, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala kudeatu eta administratzeko hitzarmena onartu du.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauko 6 1.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Biltzar Nagusietan onartu behar dira lurralde historikoen artean egindako hitzarmenak.

ARTIKULU BAKARRA

Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala kudeatu eta administratzeko hitzarmena onartu da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 11a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

3606

Zerga Premiazko Araugintza 2/2009 Dekretua berresteko Erabakia, horren bidez zerga alorreko presako zenbait neurri onartzen dira.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2009ko maiatzaren 11an egindako Osoko Bilkuran erabaki zuten Zerga Premiazko Araugintzako 2/2009 Dekretua berrestea, horren bidez zerga alorreko presako zenbait neurri onartzen dira.

Dekretua Diputatu Kontseiluak 2009ko otsailaren 7an onartu zuen eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 43. zenbakian argitaratu zen 2009ko apirilaren 15ean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko, maiatzaren 11a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

3604

12/2009 Mozioa, maiatzaren 11koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako campusean dagoen Letren Fakultatearen alde egitea proposatzen duena, eta baita gaur egun duen eskaintza akademikoaren alde ere.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2009ko maiatzaren 11an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

12/2009 Mozioa, maiatzaren 11koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako campusean dagoen Letren Fakultatearen alde egitea proposatzen duena, eta baita gaur egun duen eskaintza akademikoaren alde ere.

1.- Arabako Biltzar Nagusiek argi utzi nahi dute Euskal Herriko Unibertsitateak Araban duen Campusaren alde daudela, eta Uniber-

En el mismo sentido, el artículo 7.3 del citado Decreto establece dispone que la persona que asuma la Presidencia del Patronato del Parque Natural (que es su órgano asesor y de colaboración) será nombrada mediante Acuerdo del Gobierno Vasco a propuesta conjunta de los órganos responsables de la gestión del Parque.

Por parte de los Departamentos de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava y de Desarrollo del Medio Rural de esta Diputación Foral, órganos competentes en ambos territorios históricos para la gestión del Parque Natural, se ha elaborado una propuesta de convenio para la gestión y financiación del Parque Natural en la que se contempla el nombramiento del Diputado Foral del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa como Presidente del Patronato del Parque.

Igualmente se establece el procedimiento para la designación de la persona que ejercerá las funciones de Director-Conservador, y se concretan los demás aspectos relacionados con la gestión y administración del Parque Natural, incluida la participación de cada Diputación Foral en la financiación de los futuros gastos que origine dicha gestión. Dicha propuesta de convenio se adjunta como anexo I al presente Acuerdo.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión celebrada el 7 de abril de 2009, aprobó el Convenio para la gestión y administración del Parque Natural de Aizkorri-Aratz entre las Diputaciones Forales de Álava y Gipuzkoa.

De conformidad con lo dispuesto en el Artículo 6 1.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde a las Juntas Generales, la aprobación de Convenios con otros Territorios Históricos.

ARTÍCULO ÚNICO

Se aprueba el Convenio para la gestión y administración del Parque Natural de Aizkorri-Aratz entre las Diputaciones Forales de Álava y Gipuzkoa.

Vitoria-Gasteiz, 11 de mayo de 2009.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

3606

Acuerdo de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2009, que aprueba diversas medidas urgentes en materia tributaria.

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 11 de mayo de 2009, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2009, que aprueba diversas medidas urgentes en materia tributaria.

El Decreto fue aprobado por el Consejo de Diputados el día 7 de abril de 2009 y publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 43, de fecha de 15 de abril de 2009.

Vitoria-Gasteiz, 11 de mayo de 2009.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

3604

Moción 12/2009, de 11 de mayo, por la que se propone el apoyo a la Facultad de Letras del campus de la Universidad del País Vasco en Álava, y a la oferta académica que ofrece en la actualidad.

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 11 de mayo de 2009, aprobaron la siguiente moción:

Moción 12/2009, de 11 de mayo, por la que se propone el apoyo a la Facultad de Letras del campus de la Universidad del País Vasco en Álava, y a la oferta académica que ofrece en la actualidad.

1.- Las Juntas Generales de Álava quieren poner de manifiesto su total apoyo al Campus Universitario de la Universidad del País